



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko azaroaren 15a

132. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, SICAV-kapital aldakorreko inbertsio-sozietateen pribilegio fiskalak indargabetzekoa. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Sozietateen gaineko Zerga aldatzen duena. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (4. or.).
- Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta lan-errenten eta kapital-errenten zergapetze-sistema bikoitza kentzeari buruzkoa. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duena. Foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (7. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da publizitatea erretira dezan “Carta a un militar español” izeneko I. lehiaketaren deialditik. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da agin dezan berehala kentzeko Melillako muga-perimetroan jartzen ari diren hortz-hesia. Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako boluntario-entitateen erregistro bateratua sor dezan. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan 2013-2017 urteetarako Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren Plan Estrategikoa. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa agertzen du Nafarroako lurraldean guardia zibilaren kuartel berri bat irekitzea dela-eta. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda ditzan “konpromiso sozialeko proiektuaren” zigilua arautuko duten foru aginduak. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeek aurkeztu du (14. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ingelesez ikasteko programa ez dezan derri-gorrez ezar halakorik eskatzen ez duten ikastetxeetan. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (15. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Zirkuituaren bost urterako balizko errentamendurako lehiaketa publikoaren baldintzei buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (16. or.).
- Galdera, IMQ-k Nafarroako larrialdietako anbulantziak erabiltzeagatik Nafarroako Gobernuak fakturitzen duenari buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (17. or.).
- Galdera, entzierroko pilaketaren ondorioz, 112 zenbakiko koordinazio-salaren bidez ospitaleetara egin ziren zauritu-garraioei buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (17. or.).
- Galdera, 2014ko aurrekontuetan latxa arrazako ardia mantendu, berreskuratu eta bultzatzeko kontusail bat sartzeko asmoari buruzkoa, M.<sup>a</sup> del Carmen Ochoa Canela andreak egina (18. or.).
- Galdera, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsitako mozio bat betetzeari buruzkoa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa desegin dezan, Román Felones Morrás jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Errioxako Gobernuarekin gaixo nafarrak artatzeko sinaturiko hitzarmenari buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuak kontrataturiko *coach* zerbitzuaren koordinazio-lanei buruzkoa, Enrique Martín de Marcos jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Nafarroak Harrera Zentroen Sare Nazionalerako jarritako baliabideei buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egina (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioak 2010-2014 urteetarako Landa Garapen Iraungarriko Plana dela-eta hitzarmena sinatzeari buruzkoa, Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egina (22. or.).
- Galdera, Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioak gauzatutako ekimenei buruzkoa, Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egina (23. or.).
- Galdera, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin etxegabetzeen gaineko hitzarmen bat sinatzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (23. or.).

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Pablo Díez Lago jaunak Nafarroako Parlamentuko legelari nagusi karguari uko egitea (24. or.).

H SAILA:

**Bestelako testu arau-emaileak:**

- 4/2013 Legegintzako Foru Dekretua, urriaren 30ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena (25. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, SICAV-kapital aldakorreko inbertsio-sozietateen pribilegio fiskalak indargabetzekoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dioen legegintzarako ekimena erabiliz, Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek SICAV-kapital aldakorreko inbertsio-sozietateen pribilegio fiskalak indargabetzeko Foru Lege proposamena aurkeztu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin SICAV-kapital aldakorreko inbertsio-sozietateen pribilegio fiskalak indargabetzeko Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **SICAV-kapital aldakorreko inbertsio-sozietateen pribilegio fiskalak indargabetzeko Foru Lege proposamena**

### **ZIOEN AZALPENA**

Artikulu bakarra SICAV kapital aldakorreko inbertsio-sozietateen zerga-ordainketari buruzkoa da. SICAV direlako horiek honakoen bitartez

daude araupetuta: Inbertsio Kolektiboko erakundeek buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea eta lege horren erregelamendua onesten zuen azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretua. Lehendabiziko neurri indargabetzailea da Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan aipatu SICAV horietako kapitala eratzeko eta handitzeko operazioetarako jasotzen den salbuespenari buruzkoa, eta bigarrena –garrantzitsuagoa, diru-bilketaren eta justizia sozialaren ikuspuntutik–, sozietate horiek ordaintzen zuten % 1eko zerga-tasa oso murriztua indargabetzea.

Foru lege honen bidez aurrerabidea egiten da gure zerga-egitura ekitateko eta zerga-justiziako parametroetara egokitzeari dagokionez, eta zuzendu egiten da egungo zerga-bideek dakarten pribilegio onartezina, bide horiek aukera ematen baitute sozietate horien zerga-erantzukizun justiazkoaren itzurtzeko.

### **Artikulu bakarra.**

**1.** Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Xedapenen Testu Bateginaren 35.I.B) 25.1 artikulua indargabetzen da, 2013ko urtarrilaren 1eko ondorioekin. Testu bategina apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

**2.** Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 50. artikuluko 5. idatz-zatiko a) letra indargabetzen da, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

### **Azken xedapena.** Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako eraginekin.

## Foru Lege proposamena, Sozietateen gaineko Zerga aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dioen legegintzarako ekimena erabiliz, Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek Sozietateen gaineko Zerga aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Sozietateen gaineko Zerga aldatzen duen Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## Sozietateen gaineko Zerga aldatzen duen Foru Lege proposamena

### ZIOEN AZALPENA

Nafarroako zerga-sistemak duen problemetako bat da gero eta diru gutxiago biltzen dela sozietateen gaineko zergarekin. Haren zerga-oinarriaren jaitsierak, zeina krisi ekonomikoari egozten baitzaio, ez du guztiz azaltzen diru-bilketaren gainbehera.

Erantzukizuna zerga-tasak jaistearena da, bai eta hobari, kenkari eta zerga-arinketen mordoiloa-rena ere; izan ere, enpresek, horri esker, zerga-tasa nominaletatik atera dezakete beren etekina, arauak ezartzen duen zerga-tasatik oso urrun dagoen zerga-tasa erreal bat sortuz.

Foru lege proposamen honen xedea da zenbait aldaketa egitea, sozietateen gaineko zergen

bidezko diru-bilketa hobetzeko. Halatan, artikulua bakarrak Sozietateen gaineko Zergari buruzko aldaketak jasotzen ditu; bi neurri jasotzen dira zerga horren diru-bilketa ahalmenarekin lotuta: 15 urtetik 5 urtera murrizten da subjektu pasiboek egun duten epea, aurreko zergaldietako likidazio-oinarri negatiboen murrizketak aplikatu ahal izatekoa, eta muga orokor bat ezartzen da, % 25, pizgarriak direla-eta kuota likidoaren gainean aplikatzen ahal diren kenkariaren ehunekoari dagokionez. Horrek guztiak helburu du arauak ezartzen duen zerga-tasa nominalera hurbilaraztea zerga-tasa errealera.

**1. artikulua.** Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legean eginiko aldaketak.

Bat. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 40. artikulua aldatzen da, 2013ko urtarrilaren 1etik aitzinako ondorioekin. Hona testu berria:

“40. artikulua. Likidazio-oinarri negatiboak murriztea.

1. Likidazio-oinarri positiboa murriztu ahalko da, justu aurreko hiru urteetan amaitu ziren zergaldietako likidazio oinarri negatiboen bidez. Aurretik bidezkoa den likidazioa edo autolikidazioa behar-ko dute likidazio oinarri negatibo horiek”

Bi. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 72.3. artikulua aldatzen da, 2013ko urtarrilaren 1eko ondorioekin. Hona testu berria:

“72. artikulua. Kapitulu honetan aurreikusitako kenkari buruzko arau komunak.

(...) 3. Kapitulu honetan aurreikusitako kenkari ezin izanen dute denen artean gainditu kuota likidoaren 100eko 25, zeina heldu baita hobarietan eta kenkarietan kuota osoa minoratzen, zergape-tze bikoitza –barnekoa eta nazioartekoa– ekidite-ko”

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako eraginekin.

## **Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta lan-errenten eta kapital-errenten zergapetze-sistema bikoitza kentzeari buruzkoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dioen legegintzarako ekimena erabiliz, Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentutaldeen neurri fiskalei eta lan-errenten eta kapital-errenten zergapetze-sistema bikoitza kentzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin neurri fiskalei eta lan-errenten eta kapital-errenten zergapetze-sistema bikoitza kentzeari buruzko Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta lan-errenten eta kapital-errenten zergapetze-sistema bikoitza kentzeari buruzkoa**

### **ZIOEN AZALPENEA**

Nafarroak egiteke dauka bere zerga-egituraren berrantolaketa sakon bat, gizarte-justizia lortzeko bidean aurrerabiderik onena ziurtatuko duten politika publikoen finantzaketa egoki bat bermatuko duena. Halere, berrikitan jakin dugu UPNren Nafarroako Gobernuak uko egin diola zerga-proposamen "integral" bat egiteari 2014ari begira. Jokabide hori bere ezgaitasunaren eta arduragabekeriaren erakusgarri berri bat da, bereziki onartezina dena herritarrek bizi duten krisi ekonomiko eta sozialeko testuinguru honetan.

Gaue-gaurkoz, agerikoa da Nafarroaren egungo zerga-egiturak eta UPNren Gobernuak egindako kudeaketak porrot egin dutela. Izan ere, egitura horrek erakutsi du oso-oso ahula dela bermatzeko Nafarroak bere baliabide ekonomikoak izan ditzan bere herritarren eskariak asetzeko. Horretarako,

beharrezkoa da zerga-erreformak bere jomuga jar-tzea gure sisteman ekitaterik ez duten puntuetan, aberastasunaren birbanaketaren eta gehikortasunaren printzipioak bermatzeko helburuarekin.

Foru Lege proposamen honen xedea da laneko errenten eta kapitaleko errenten zergapetze ezberdinetan aldaketa bat egitea, kapitaleko errentak zerga-oinarrrian eta likidazio-oinarrrian integratzeko sisteman aldaketa bat sartuz. Kendu egiten da laneko nahiz kapitaleko errentei dago-kienez abenduaren 27ko 18/2006 Foru Legean jaso zen zergapetze-sistema bikoitza, ez dadin jait-siera handirik gerta kapitaleko errentek ordaindu beharreko zerga-tasan.

**Artikulu bakarra.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren aldaketa.

**Bat.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko 53. artikulua aldatzen da, 2013an eta hurrengo urteetan amaitzen diren zergaldietarako ondorioekin. Testu Bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen. Hona testu berria:

53. artikulua. Zati orokorra.

Zerga-oinarriaren zati orokorra osatuko dute subjektu pasiboaren errenta guztiek, hurrengo artikuluan aipatzen diren ondare-gehikuntzak eta -murrizketak kenduta, eta ondokoez osatuko da:

a) Foru lege honetako 51., 52.4. eta 52. bis artikuluetan aipatzen diren errenta egozpenak eta errendimenduak eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko X. tituluko IV. kapitulua zergaldi bakoitzean elkar-ren artean, inolako mugarik gabe konpentsatetik eta integratetik ateratzen den saldoa.

b) Ondare-gehikuntzak eta -murrizketak zergaldi bakoitzean beren artean soilik konpentsatetik eta integratetik ateratzen den saldo positiboa, hurrengo artikuluan aurreikusitakoak kenduta. Konpentsazioaren eta integrazioaren emaitza negatiboa baldin bada, letra honetan aipatutako hurrengo lau urteetako ondare-gehikuntzen saldo positiboarekin konpentsatuko da bere zenbatekoa.

Hurrengo urteetako bakoitzak ahalbidetzen duen gehieneko zenbatekoan egin beharko da konpentsazioa, eta ezin izanen da egin arestiko lerroaldean aipatzen den epetik kanpo, hurrengo urteetako ondare-murrizketei erantsiz."

**Bi.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko 54. artikulua aldatzen da, 2012an eta hurrengo urteetan amaitzen diren zergaldietarako ondorioekin. Testu Bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen. Hona testu berria:

“54. artikulua. Zati berezia.

Zerga-oinarriaren zati berezia osatuko du zergaldi bakoitzean konakoak beren artean eta ez besterekin integrazetik eta konpentsazetik ateratzen den saldo positiboak: onare-gehikuntzak eta -murrizketak, agerian jartzen direnak ondare-aldaketak gertatzen direnean, bai kasuko ondare-aldaketaren egunarekiko urtebete baino gehiagoko aurrearapenez eskuratuak diren esku-bideen edo ondasunen ondorioz, bai aurrerapen berarekin erositako balioei dagozkien harpidetza-esku-bideen ondorioz.

Integrazio eta konpentsazioaren emaitzak saldo negatiboa izanen balu, zenbatekoa, artikuluhonek aipatu eta hurrengo lau urteetan zehar azaleratzen diren ondare gehikuntzen bidez bakarrik konpentsatu ahal izanen da.

Hurrengo urteetako bakoitzak ahalbidetzen duen gehieneko zenbatekoan egin beharko da konpentsazioa, eta ezin izanen da egin arestiko lerroaldean aipatzen den epetik kanpo, hurrengo urteetako ondare-murrizketei erantsiz”.

**Hiru.** Ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko 57. artikulua aldatzen da, 2013an eta hurrengo urteetan amaitzen diren zergaldietarako ondorioekin. Hona testu berria:

“57. artikulua. Likidazio-oinarri berezia.

Aurrezkiaren likidazio-oinarri berezia izanen da zerga-oinarriaren zati bereziari, kasua bada, 55. artikuluko 7. idatz-zatiko 2. erregelak aipatzen duen murrizketa aplikatuzetik heldu dena.”

**Lau.** Ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko 60. artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

“60. artikulua. Likidazio-oinarri bereziaren karga-tasa.

Honela kargatuko da likidazio-oinarri berezia:

Batez besteko ondoko tasetan handiena hartuko da:

a) Oinarri horren 100eko 50eko karga-tasa aplikatuzetik heldu den batez besteko tasa.

b) Foru lege honetako 59. artikuluko 2. idatz-zatian definitutako batez besteko karga-tasa.

Aipatu batez besteko tasa, zeina ezin izanen baita izan 30etik gorakoa, biderkatu egingen da, tasa hori zati 30 egitetik heldu den zatidurarekin.

Horrela zehaztutako zenbatekoak osatuko du likidazio-oinarri bereziari aplikatu beharreko karga-tasa.

Arestian aipatutako karga-tasa 100eko 20tik gorakoa ateratzen den kasuetan, ehuneko hori bera aplikatuko da, baldin eta ondare-gehikuntzak eragin dituzten ondare-elementuen kostu bidezko besterentzetik heldu den zenbateko osoa berrinbertitzen bada ondoko baldintzak betez:

Lehena. Berrinbertsioa Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legeko 10, 11, 13, 15 eta 16. artikuluek aipatzen dituzten ondare-elementuetan egin beharko da, besterentzea egin eta hiru hilabeteko epean; edo, epeka edo prezio geroratuarekin egindako eragiketen kasuan, kobrantzaren egunetik hiru hilabeteko epean.

2. Berrinbertsioa gauzatzen deneko ondare-elementuek gutxienez ere bi urtez egon beharko dute subjektu pasiboaren ondarean. Baldintza hori ez da betegabetzat hartuko baldin eta elementu horiek kostu bidez transmititzen badira epe hori bukatu aurretik eta lortutako zenbatekoa berriz ere inbertitzen bada arestiko idatz-zatian ezarritakoa betez, harik eta aipaturiko bi urteko epea osatu arte.

3. Berrinbertsioa agiri bidez frogatu beharko da, zergaren kasuko aitorpena aurkezten denean.

Berrinbertsio partzialen kasuan, 100eko 20ko karga-tasa aplikatuko zaion likidazio-oinarria aterako da inbertitutako guztizkoak besterentze osoarekiko egiten duen proportzioa aplikatuzetik.

Artikulu honetan ezarritako baldintzak bete ezean, subjektu pasiboak murrizketaren xede izandako kuota osoa ordaindu beharko du, bai eta berandutze-interesak ere, ez-betetzea gertatu zen zergaldiari dagokion aitorpena egiten duen unean.”

**Bost.** Pentsio planetara ekarpenak egin edo aurrezteagatik kuota likidoari aplikatutako kenkariaren ehunekoa aipatzen duen artikuluzatia aldatzen da, ehunekoa % 5ean utziz”.

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako eraginekin.

## Foru Lege proposamena, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dioen legegintzarako ekimena erabiliz, foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, hona

### ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### Foru Lege proposamena, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak Nafarroako Aurrekontu Orokorrak, finantza-operazioak, diruzaintza, barne kontrola edo kontabilitatea bezalako oinarriko alderdiak arautzen ditu.

Finantza-operazioei buruzko tituluan jorratzen dira zorpetze-operazioen auzia (Ogasun Publikoa, mailegu-hartzaile gisa) eta abalena (Ogasun Publikoa, abal-emaile gisa). Halere, ez ditu aztertzen Ogasun Publikoak hirugarrenei emandako maileguak.

Berariazko arau-esparrurik ezean, Nafarroako Gobernuaren eskumena da erabakitzea nori ematen dion mailegua, zenbat ematen duen maileguan eta zer baldintzatan ematen duen mailegua. Jakina, arrazoizkoa da Gobernuak erabakitze askatasun-tarte handi bat edukitzea arlo horretan,

baina egokia da, orobat, zenbait muga ezartzea, eskumen hori behar bezala erabil dadin.

Azken aldi harriduraz jakin dugu zer baldintzatan eman zion Nafarroako Gobernuak Tuterako Udalari mailegu bat 2006an, abenduaren 29ko 465/2006 Foru Aginduaren bidez. Diru askoko mailegu bat da, xede jakin baterako, interesik gabekoa, 16 urteko amortizazio-epe bat duena gabealditik aitzina, zeina hasiera batean 4 urtekoa baitzen, baina Gobernuak, 2011n, hiru urte gehiago luzatzea erabaki baitzuen. Mailegu horretan funtsak ematen ziren, gainera, kontratuan ezarritako xederako soilik erabiliko zirela bermatzeko beharrezkoak ziren tresna juridikoak ezarri gabe. Funts horiek, 7 urte igarota, ez dira egiazki erabili aurreikusitako xederako. Hori guztia gutxi balitz bezala, Tuterako Udalak berriro ere eskatu du mailegu horren gabealdia –eta horrenbestez, maileguaren amortizazio-epea– luza dadin. Orain dagoen moduan, 2014an hasi behar da amortizatzen. Argi dago operazio horrek normalizat har litezkeen jarduketak mugak gainditzen dituela.

Foru lege proposamen honen xedea da egindako akatsetatik irakaspen bat ateratzea eta gutxieneko araubide bat ezartzea, bermatze aldera ez direla berriro ere gertatuko Tuterako Udalari emandako maileguarekin gertatutakoaren moduko egoerak.

Horregatik guztiagatik aurkeztu da Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamen hau.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen da, III. tituluko III. kapituluaren ostean –Finantza-operazioak– IV. kapitulu berria, Nafarroako Ogasun Publikoak emandako maileguak, sartuta. Hona kapitulu berriaren testua:

#### “IV. KAPITULUA

Nafarroako Ogasun Publikoak  
emandako maileguak

82. bis artikulua. Emandako maileguak.

Foru Komunitateak eta haren mendeko entitateak –enpresa-entitate publikoak, fundazio publikoak eta sozietate publikoak–, kapitulu honetan ezarritakoarekin bat, funtsak utzi ahalko dizkiete maileguan pertsona fisikoei edo juridikoei, publiko nahiz pribatuei, kasuan kasuko mailegu-kontratuak eginez.

## 82. ter artikulua. Legezko gaitasuna.

- Foru lege baten bidez baimendu beharko da mailegu-ematea. Horretarako, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak ezarriko du uneoro maileguek izan dezaketen gehieneko arrisku bizia, bai eta kasuko ekitaldian eman ahal izanen den gehieneko mailegu-bolumena ere, bi balio horiek bereiz finkatuta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarentzat, batetik, eta haren menpeko entitateen multzoarentzat –enpresa-entitate publikoak, fundazio publikoak eta sozietate publikoak–, bestetik.

- Ulertuko da aurreko idatz-zatian aipatzen den gehieneko arrisku bizia dagokiola emandako maileguetatik kobratzeke dagoen printzipalari.

- Parlamentuak berariazko baimena eman ezean, inongo pertsona fisikorik edo juridikorik ezin izanen du izan aipatutako Aurrekontuei buruzko Foru Legean ezarritako gehieneko arrisku biziaren 100eko 5etik gorako zenbatekoa duten maileguen onuradun. Gehieneko arrisku bizia entitate emaileen arabera aintzat hartuko da, hau da, maileguak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren menpeko entitateek emanak izatearen arabera.

- Parlamentuak berariazko baimena eman ezean, inongo pertsona fisiko edo juridiko ezin izanen da izan Nafarroako Foru Komunitateak mailegu-hartzaile gisa formalizatutako azken zorpetze-operazioko interes-tasaren % 50 baino interes-tasa txikiagoa duen mailegu baten onuraduna.

- Parlamentuak berariazko baimena eman ezean, inongo pertsona fisiko edo juridiko ezin izanen da izan printzipalaren amortizazio-gabealdia 4 urtetik gorakoa duen mailegu baten onuraduna.

- Parlamentuak berariazko baimena eman ezean, Nafarroako Foru Komunitateak ezin izanen du eman xede jakin baterako mailegurik bermerik ezartzen ez duenik, ziurtatzeko ezen lortu nahi den xederako, ez beste ezertarako, baliatuko dituela mailegu-hartzaileak funts horiek.

82. quárter artikulua. Mailegua emateko erabakia.

- Nafarroako Gobernuaren erabaki baten bidez emanen dira aurreko artikuluan aipatzen diren maileguak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik.

- Nafarroako Gobernuaren erabakia berariaz operazio bakoitzerako emana nahiz zenbait operaziotarako emana izan ahalko da, eta betiere honako hauek zehaztuko ditu: mailegu-hartzailearen nortasuna, maileguak emateko epea eta gehieneko zenbatekoa, banakakoa edo osotarakoa.

82. quinquies artikulua. Maileguak formalizatzea.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak formalizatuko ditu maileguak, eta erregelamendu bidez ezartzen den moduan dokumentatuko dira.”

**Azken xedapenetan lehena.** Indargabetzea.

Indarrrik gabe gelditzen dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.



---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da publizitatea erretira dezan “Carta a un militar español” izeneko I. lehiaketaren deialditik.**

*BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita publizitatea erretira dezan “Carta a un militar español” izeneko I. lehiaketaren deialditik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean presako bidetik eztabaidatu eta bozkatzeko:

Hezkuntza Departamentuak, Gaztelania Atalaren bitartez, “Carta a un militar español” lehiaketaren lehendabiziko deialdia igorri du ikastetxeetara,

eta bere web orrian argitaratu du. Estatuaren ekimena da, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua sustatzen ari dena. Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleek parte hartzen ahal dute lehiaketan, “El Militar Español en el cumplimiento de las misiones constitucionales de las Fuerzas Armadas” goiburupean. Nazioko irabazlea eta finalista hautatzea Defentsa Ministerioaren ardura izanen da.

Gure ustez, deialdi honek ez du inolako hezkuntza-helbururik, baizik eta ideologikoa, eta horren erakusgarri da ikasleen lanak hautatzeko ardura Defentsa Ministerioarena izanen dela, ezen ez Hezkuntza Ministerioarena.

Hori dela-eta, gure parlamentu-taldeen ondoko erabaki proposamena aurkeztu dute:

1. Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du hezkuntza-esparruan militarismoaren balioak sustatzea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du deialdi horren publizitatea erretira dezan, uste baitu ideologikoa dela erabat, ezen ez hezkuntza arlokoa, ez dagoelako bideratuta hizkuntza-trebetasunak lortzera, ez balioetan oinarritutako hezkuntza sustatzera, ez bizikidetasun baketsura ere.

Iruñean, 2013ko urriaren 30ean

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da agin dezan berehala kentzeko Melillako muga-perimetroan jartzen ari diren hortz-hesia.**

### *MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita agin dezan berehala kentzeko Melillako muga-perimetroan jartzen ari diren hortz-hesia.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Orain dela gutxi jakin dugunez, "kontzertina" izenekoak paratu dira Melilla inguratzen duen burdin sare bikoitzaren goialdean; hau da, alandreekin nahasten diren hortzak paratu dira. 2005ean ere jarri ziren, baina etorkinek burdin sarea samaldan gurutzatzeko saioetan lesioak izaten zituzteenez, GKE ugarik eta Arartekoak berak salaketa egin zuten, eta, horrenbestez, Rodríguez Zapateroren Gobernuak material hori erretiratu zuen 2007an; izan ere, etorkinek zauri larriak pairatzen zituzten Espainiako lurraldean sartu nahian burdin sarera igotzen zirenean, eta kontzertinen orde hiru garren sare bat paratu zuten.

Hainbat erakunde azaldu dira hortz horiek berriro paratu izanaren aurka. Amnesty Internationalek ohartarazi du lehengo segurtasun sistema berriro jartzeak kalte fisikoa eragingen diela per-

tsiona askori—etorkinek ez dute horregatik etsiko muga gurutzatzeko beren asmoan—, eta atzerapauso bat izanen da etorkinen eskubideen arloan. Estatuak bere burua babesteko eskubidea du, baina ez etorkinen bizitza arriskuan jartzekoa.

Xavier Ferrer-ek dioenez—Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko geografiako irakaslea eta mugetan aditua da—, "Melillako perimetroan hortzak berriro jartzea gotorlekuen usadio ilunera harrigarriro itzultzea da."

SOS Arrazakeria elkartearen arabera, Barne Ministerioaren proiektua "tamalgarria" da. "Gure aburuz, neurri horiek ez lukete legezkoak izan behar. Etika eta moral orotatik at dago", adierazi du GKEko eledun Lluca Sánchezek.

Gure taldeak sakonki deitoratzen du lehentasuna eman dakiela Europar Batasunaren segurtasun politikari, ezen ez pertsonen bizitzari. Horrenbestez, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

**1.** Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du Melillako muga-perimetroan paratzen ari den kontzertina izeneko hortz-alanbrea berehala kentzeko agin dezan, etorkinen osotasun fisikorako kaltegarria izateagatik.

**2.** Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du bestelako neurri batzukhar daitezen; esate baterako, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako profesionalen zuzkida areagotzea Melillako mugan, edo Marokorekiko lankidetzaren eraginkorra hobetzea, Melillatik hurbileko itxaronaldi jendetsuak ekiditeko.

**3.** Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du jatorriko herrialdeekiko garapenerako lankidetzako politikak berreskuratzeko; izan ere, immigrazioak pertsona horiek beren herrialdeetan bizi duten egoera desesperatuarekin zerikusia dauka.

Iruñean, 2013ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako boluntario-entitateen erregistro bateratua sor dezan.**

### *AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako boluntario-entitateen erregistro bateratua sor dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako Gobernuak Boluntarioen Erregistroa sortzera premiatzen duen mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko.

Boluntariotzaren egungo egoera eta Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legeak izandako garapena izan zen boluntario-entitateek orain dela gutxi Iruñean egindako Nafarroako bigarren jardunaldien ardatzetako bat.

Foru lege hori 1998ko ekainean indarrean sartu zenetik igarotako denboran egiaztatu ahal izan da, alde batetik, arauaren garapen eza, eta, bestetik, gero eta garrantzitsuagoa eta nabarmenagoa dela boluntariotzaren eginkizuna gaur egungo gizartean eta, zehazki, Nafarroan.

Beste erkidego batzuek ez bezala, Nafarroak gaur egun ez dauka boluntario-entitateen erregistro bateraturik. Horrek, lehenik eta behin, eragotzi egiten du mugimendu horrek gure erkidegoan bizi duen egoerari eta bere potentzialtasun osoari buruzko erradiografia zehatz bat edukitzea.

Boluntarioen Nafarroako Plataformak adierazi du erregistro bat sortzea dela mugimendu horrek egun dituen lehendabiziko beharizanetako bat.

Martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legean behin baino gehiagotan aipatzen da boluntario-entitateen erregistroa. Halatan, xedapen gehigarri baka-rrak ondokoa ezartzen du:

“Nafarroako Gobernuak, gehienez ere Foru Lege honek indarra hartu eta urtebeteko epearen barrenean, ondokoei buruzko erregelamenduak onetsiko ditu: Bolondres Entitateen Erregistroa (...)”

Horregatik guztiatik, ondokoa proposatzen da:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du hiru hilabeteko epean Nafarroako boluntario-entitateen erregistro bateratua sor dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan 2013-2017 urteetarako Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren Plan Estrategikoa.**

*AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita alda dezan 2013-2017 urteetarako Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren Plan Estrategikoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren Plan Estrategikoa aldatzeko mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren 2013-2017 aldirako Plan Estrategikoa argitaratu du orain dela gutxi (urriaren 11n) NAOn, eta, ondorioz, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren 2013-2014 ikasturterako Urteko Jarduketa Plana ere argitaratu du urriaren 29ko NAOn.

Ez Plan Estrategikoan, ez Urteko Planean, ez da berariaz aipatzen ikastetxeek erabiltzen dituz-

ten testuliburuak edo horien ordezeko materialak kontrolatzeko eta ikuskatzeko jarduketarik. Egia da Urteko Planean ageri dela, "Hezkuntza administrazioak eskatzen dituen txosten eta azterlanak egitea" atalean jasotako oharretan, "material didaktikoak nola egokitzen zaizkion Nafarroako curriculum ofizialari," eta hori ikasturteko lehenengo hiruhilekoan egitea aurreikusten dela.

Hezkuntza Departamentuak informazio-eskaera baten ondorioz igorritako datuen arabera, D ereduan ikastetxeak berak egina da Lehen eta Bigarren Hezkuntzan Historiako edo Ingurunearen Ezagutzako ikasgaietan erabilitako materialen % 46,64. Zehazki, Nafarroa osoan 243 dira, 521etik, bai sare publiko ikastetxeetan, bai sare itundukoetan.

Kopuru horren garrantzia ikusita –materialen ia erdiak ikastetxeak berak egina dira–, gure ustez beharrezkoa da Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak arreta handiagoa jartzea atal horretan. Ezin da mugatu Urteko Planean txosten soil bat egitera; aitzitik, berariazko atal garrantzitsu bat izan behar du Plan Estrategikoaren barruan, gero urteko planetan eragina izanen duena.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren 2013-2017 aldirako Plan Estrategikoa alda dezan, berariaz jasotze aldera, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren eginkizun gisa, ikastetxeek taxututako material didaktikoak aztertzea, bai eta Nafarroako curriculum ofizialera egokitzen ote diren aztertzea ere.

Iruñean, 2013ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa agertzen du Nafarroako lurraldean guardia zibilaren kuartel berri bat irekitzea dela-eta.**

### *BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa agertzen baitu Nafarroako lurraldean guardia zibilaren kuartel berri bat irekitzea dela-eta.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Iragan urriaren 9an, Barneko ministro Jorge Fernández Díazek iragarri zuen Guardia Zibilaren kuartel berri bat eraikiko dela Nafarroako Fiteroko herrian.

Urriaren 28an, hitzarmen bat sinatu zuten Fiteroko alkate Pachi Yanguas jaunak eta Barneko ministroak berak, instalazio militar hori eraikitzeko baldintzak zehazten dituen. Hitzarmen horren arabera, Udalak doan lagako du udal kiroldegiaren alboko hiri-orube finkatu bat, ekipamenduetarako erabilera duena, eta Barne Ministerioak 1,1 milioi inguru jarriko ditu kuartela eraikitzeko. Kontusail hori Estatuko Aurrekontu Orokorretan jasota dago jadanik.

Nafarroak biztanle bakoitzeko Europako polizia-ratiorik handiena du. Zenbait iturriren arabera, ratioa 6,76 polizia ingurukoa da, mila biztanle bakoitzeko. Ekipamendu militar berria ez dago inolaz ere Nafarroako Erriberako herritarren lehen-tasunen artean.

Kontuan hartu behar da Guardia Zibilaren Fiteroko kuartel zaharra 1991n itxi zela, operatiboa ez izateagatik. Harrezkero, Foruzaingoa Erriberan hedatu da, Tuterako polizia-etxea 2002ko martxoaren 27an irekita, halako moduan non sarritan polizia-bikoiztasuna gertatzen baita.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duten parlamentu-taldeen ondoko erabaki proposamena aurkezten dute:

Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Nafarroako lurraldean Guardia Zibilaren kuartel berri bat irekitzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 6an

Foru parlamentariak: Víctor Rubio Martínez eta Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da alda ditzan “konpromiso sozialeko proiektuaren” zigilua arautuko duten foru aginduak.**

### *SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita alda ditzan “konpromiso sozialeko proiektuaren” zigilua arautuko duten foru aginduak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Roberto Jiménez Alli Socialistas de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, kasuko batzordean eztabaidatu eta bozka dadin. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da “konpromiso sozialeko proiektuaren zigilua” arautuko duten foru aginduak alda ditzan.

Iragan abuztuaren 26an, Nafarroako Aldizkari Ofizialak argitara eman zuen 615/2013 Foru Agindua, uztailaren 31koa, Gizarte Politiketako kontseilariak emana, “Konpromiso sozialeko proiektua” izeneko zigilua emateko 2013. urterako deialdia eta oinarri arautzaileak onesten dituen, uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betetzeko.

Foru agindu horrek arautzen du zer baldintza bete behar dituzten deialdian parte hartzen duten

hirugarren sektoreko entitateek, konpromiso sozialeko proiektuaren zigilua lortuko badute.

Orain arte, 17 entitateen 24 proiektuk jaso dute zigilua; horien artean daude, besteak beste, Gurutze Gorria, Médicos del Mundo, UNICEF, ANAFE Fundazioa, Gizakia Helburu, ANFAS, Elkagaien Bankua, ADEMNA, Vicente Ferrer eta Erruki Etxea.

Proiektua abian jartzean agerian gelditu dira zenbait disfuntzio, hobetu egin beharko liratekeenak gizarte entitateei kudeaketa errazteko, ahaztu gabe, betiere, partikularrek edo enpresek egindako ekarpenek ezin dituztela ordezkatu Gobernuak gizarte arloan daukan erantzukizun politikoa nahiz aurrekontu arlokoa.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Gobernuak premiatzen du ondoko aldaketak sar ditzan konpromiso sozialeko proiektuaren zigilua arautuko duten foru aginduetan:

1.- Proiektu globalak ondoko esparruetan proposatzen dituzten gizarte-entitateentzako zigiluek ematea arautzea: gizarteratzea, pobreziaren aurkako borroka, ezgaitasunaren eta mendekotasunaren arloko laguntza-zerbitzua, hegoaldeko herrialdeen garapena, eta abar.

2. “Konpromiso sozialeko proiektua” izeneko zigilua lortzeko deialdira aurkezteko burokrazia-izapideak azkartu eta erraztea.

3.- Gizarte-entitateek laguntza publikoetarako aurkeztutako dokumentazio bera baliatzea konpromiso sozialeko proiektuaren zigiluaren deialdirako.

Iruñean, 2013ko azaroaren 7an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ingelesez ikasteko programa ez dezan derrigorrez ezar halakorik eskatzen ez duten ikastetxeetan.**

### ***BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE***

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ingelesez ikasteko programa ez dezan derrigorrez ezar halakorik eskatzen ez duten ikastetxeetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduko 197. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Iragan urriaren 16an lan bilera egin genuen "Aurrera D Uharte" Plataformako ordezkariekin Hezkuntza Batzordean, beren iritzia eman eta beren kezka azal zezaten Uharteko "Virgen Blanca" ikastetxe publikoan ingelesez ikasteko programa jartzeko aukerari buruz. Lan bilera hartan azaldu zutenenez, ingelesez ikasteko programa inposatzearen aurka daude –haien ustez, inposizio bat izan da–, ikastetxeak ez baitu halakorik eskatu; are gehiago, argi geratu da behin baino gehiagotan programa horren kontra dagoela.

Zuzendaritza taldeak ez du halakorik eskatu, klaustroak hiru aldiz utzi du argi ez duela nahi ingelesez ikasteko programa ezartzerik, Koordinazio Pedagogikorako Batzordeak aurka zegoela adierazi zuen 2010eko abenduan, eta Eskola Kontseiluak programaren aurkako erabaki bat hartu

zuen 2011ko urtarrilean, klaustroari eta Koordinazio Pedagogikorako Batzordeari bere babesa emanaz. Familien jarrerari buruz jasotako datuak ere ildo beretik doaz. Sektore horiek guztiek ingeleza ikastearen garrantzia onartzen badute ere, ez du ematen komeni denik gisa horretako proiektu batean sartzea hezkuntza erkidego guztiak horren aurka dagoela adierazi duenean.

Agerikoa denez kasu honetan ez gaudela borondatezko proiektu baten aurrean, argi utzi behar da arazo hau ez dela ikastetxe horrena bakarrik, baizik eta Hezkuntza Departamentuaren jokabide orokor bati dagokiola. Gure ustez, funtsezkoa da ikastetxeek beren konpromisoa eta oniritzia ematea gisa horretako berritasunak ezartzeko, baina hori ez da, iruditzen zaigu, ingelesez ikasteko programaren ezarpenak planteatzen digun arazo bakarra. Uste dugu ingelesaren irakaskuntza ezin dela izan ebaluaziorik gabeko prozesu esperimenterik, argi geratu baita gabeziak dituela hainbat alderdiri dagokionez: zehaztapena, material eza, etapen arteko jarraitutasun eza, gabeziak irakasleen prestakuntzaren arloan, ikasleen berriarazko beharrianak artatzearen arloan...

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez dezan derrigorrez ezar ingelesez ikasteko programa, halakorik eskatu ez duten ikastetxeetan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ingelesez ikasteko programen oinarritzko alderdiei buruzko araudia –110/2011 Foru Agindua– egokitu dezan, halako moduan non ingelesez ikasteko programa ezartzeko exigentzia-maila izanen baita Bigarren Hezkuntzako atal elebidunetako programen deialdietako berbera –134/2013 Ebazpena–.

Iruñean, 2013ko azaroaren 7an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro, Patxi Zabaleta Zabaleta eta Marisa De Simón Caballero

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Nafarroako Zirkuituaren bost urterako balizko errentamendurako lehiaketa publikoaren baldintzei buruzkoa.**

*BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Zirkuituaren bost urterako balizko errentamendurako lehiaketa publikoaren baldintzei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Diru publikoen kargura –eta, horrenbestez, Nafarroako herritarren kargura– milioiak galtzen urteak eman ondoren, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak lehiaketa publiko bat aurkeztu du, Los Arcosko abiadura-zirkuituaren kudeaketa kanpoan kontratatzeko.

Bost milioi euro inguruko aurrezkoa lortu nahi da Nafarroako zirkuituaren lehiaketarekin eta bost urterako balizko errentamenduarekin.

Datuen arabera –Gizarte Politiketako kontseilariak batzordean egindako agerraldi batean berretsi zituen– urteko ustiapen-defizita milioi bat euro ingurukoa izan daiteke.

Zirkuituaren jarduerak eta amortizazioak eragindako galerei buruz kontseilariak egindako interpretazio hori ez dator bat Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak aurkeztutako kontuekin.

Korporazioaren kontuen arabera, ondokoak izan dira galerak ekitaldi bakoitzean (halere, kontuan hartu beharra dago Territorio Roncalia, S.L. sozietatea ere sartzen dela hor):

Urtea	Galerak, milaka eurotan adieraziak
2008	165
2009	310
2010	2.600
2011	4.991
2012	4.790

Nafarroako zirkuituaren lehiaketa publikoaren eta bost urterako balizko errentamenduaren baldintzek bermatuko al dute diru publikotik batere kantitaterik jarri behar ez izatea jarduera horri eutsi ahal izateko?

Iruñean, 2013ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran



## **Galdera, IMQ-k Nafarroako larrialdietako anbulantziak erabiltzeagatik Nafarroako Gobernuak fakturatzen duenari buruzkoa.**

*SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, IMQ-k Nafarroako larrialdietako anbulantziak erabiltzeagatik Nafarroako Gobernuak fakturatzen duenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Iguatorialio Médico Quirúrgicoarekiko hitzarmenari buruzko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzuteko:

Galderaren testua

- Nafarroako Gobernuak zenbat fakturatzen du IMQk Nafarroako larrialdietako anbulantziak erabiltzeagatik?

Iruñean, 2013ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## **Galdera, entzierroko pilaketaren ondorioz, 112 zenbakiko koordinazio-salaren bidez ospitaleetara egin ziren zauritu-garraioei buruzkoa.**

*SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, entzierroko pilaketaren ondorioz, 112 zenbakiko koordinazio-salaren bidez ospitaleetara egin ziren zauritu-garraioei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, uztailaren 13ko entzierroko pilaketari buruzko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzuteko:

Galderaren testua

- Entzierroko pilaketaren ondorioz zenbat zauritu eraman ziren ospitaleetara 112 zenbakiko koordinazio-salaren bidez?

- Zenbat koordinatu zituen Gurutze Gorriak 112aren bidez, zenbat DYAk edo entzierroan larrialdiko esku-hartzearen zereginetarako esleitutako beste parte-hartzaile batzuen bidez?

Iruñean, 2013ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## **Galdera, 2014ko aurrekontuetan latxa arrazako ardia mantendu, berreskuratu eta bultzatzeko kontusail bat sartzeko asmoari buruzkoa.**

*M.<sup>a</sup> DEL CARMEN OCHOA CANELA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.<sup>a</sup> del Carmen Ochoa Canela andreak aurkeztutako galdera, 2014ko aurrekontuetan latxa arrazako ardia mantendu, berreskuratu eta bultzatzeko kontusail bat sartzeko asmoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Mari Carmen Ochoa Canelak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Aslanaren egoerari buruzko ondoko galdera aurkeztu du, Landa Garapeneko kontseilariak kasuko batzordean ahoz erantzuteko:

Parlamentuak Aslanara egindako bisitan egiaztatu zen lagundu egin beharra dagoela latxa arraza autoktonoko ardia iraunarazi, berreskuratu eta sustatzeko.

Jaso dugun informazioaren arabera, beste autonomia erkidego batzuek beren LGPetan sartuko dituzte kasuko laguntzak, eta ardiak erditzeko unea orain denez eta abenduan 2014ko kanpainako esne-kontrolak hasten direnez, uste dugu hori baino lehenago jakin behar dutela ekonomikoki nola helduko dioten datorren kanpainari.

Aurten 60.000 euroko defizita izan dute, eta 2014rako, diru-laguntzarik ez badago, egoera are okerragoa izanen da, langile bat gutxiago daukatelako. Haien kalkuluen arabera, defizita 100.000 eurokoa izanen da, gutxi gorabehera.

Hori guztia dela-eta, hauxe galdetzen diogu arloko kontseilariari:

- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik kasuko kontusaila 2014ko aurrekontu berrietan sartzeko? Ezezkoan, ba al du asmorik 2014rako LGP berriaren kargura sartzeko?

Iruñean, 2013ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: María Carmen Ochoa Canela

## **Galdera, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsitako mozio batbetetzeari buruzkoa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa desegin dezan.**

### *ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsitako mozio bat betetzeari buruzkoa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa desegin dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, ondoko galdera aurkeztu du, kasuko batzordean ahoz erantzuteko:

Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetarako Batzordeak mozio bat onetsi zuen iragan urriaren 23an –9 boto alde eta 6 kontra–, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen “Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa desagerraraz dezan, sortu zeneko helburuak lortzeko duen eraginkortasun urriagatik eta Nafarroako Gobernuak Fundazioaren emaitzak hobetzeko behar diren aldaketak proposatzeko interesik ez edukitzeagatik”.

Mozio hori onetsi zenetik aste batzuk joan direnez Gobernuak zer asmo duen jakin gabe, ondoko jakin nahi dut:

Galderaren testua:

- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik mozioan onetsitakoa betetzeko?
- Baiezkoan, zein datatan, gutxi gorabehera?
- Ezezkoan, zergatik?

Iruñean, 2013ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## Galdera, Errioxako Gobernuarekin gaixo nafarrak artatzeko sinaturiko hitzarmenari buruzkoa.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, Errioxako Gobernuarekin gaixo nafarrak artatzeko sinaturiko hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Galderaren testua:

- Gaixo nafarrak artatze aldera Errioxako Gobernuarekin sinatutako hitzarmenean dialisiz erbitzua sar al daiteke?

Iruñean, 2013ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## Galdera, Osasun Departamentuak kontrataturiko *coach* zerbitzuaren koordinazio-lanei buruzkoa.

ENRIQUE MARTÍN DE MARCOS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Enrique Martín de Marcos jaunak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuak kontrataturiko *coach* zerbitzuaren koordinazio-lanei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Enrique Martín de Marcos jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan

xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako ospitaleguneko elikatze-sistema hobetze aldera Osasun Departamentuak kontratutako *coach*aren koordinazio-lanak bukatu direla ikusita, ondokoa jakin nahi dugu:

*Coach*aren kontratazioaren kostua.

Lana zer epetan egin duen.

Hasiera batean aurreikusitako lan-kronograma bete ote den, eta egindako bilerak zehaztea.

Jarritako helburuak zenbateraino bete diren.

Antza denez, *coach*ak egindako lanaren ondorioztapenak ez dira ezagutzera emanen. Zergatik?

Osasun Departamentuak esperientzia hori dela-eta zer balorazio egiten duen, eta esperientzia hori Nafarroako Osasun Zerbitzuko beste esparru batzuetan aurrerantzean aplikatzeko aukerak.

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Enrique Martín de Marcos

## **Galdera, Nafarroak Harrera Zentroen Sare Nazionalerako jarritako baliabideei buruzkoa.**

### *AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Nafarroak Harrera Zentroen Sare Nazionalerako jarritako baliabideei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz

Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Madriren iragan ekainaren 17an egin zen Berdintasunaren Konferentzia Sektorialean erabaki zen, besteak beste, Harrera Zentroen Sare Nazional berri bat ezartzea, genero-indarkeriaren biktimen segurtasuna eta babesa hobetzeko.

Horri dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

– Nafarroak Harrera Zentroen Sare Nazionalerako jarritako baliabideen zerrenda.

– Ea Nafarroak deribazio-protokolo bat sinatu duen jada, edo sinatuko duen, sare nazional hori dela-eta.

Iruñean, 2013ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioak 2010-2014 urteetarako Landa Garapen Iraungarrirako Plana dela-eta hitzarmena sinatzeari buruzkoa.**

*MIREN JULIA ARANOA ASTIGARRAGA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioak 2010-2014 urteetarako Landa Garapen Iraungarrirako Plana dela-eta hitzarmena sinatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilari Lourdes Goicoechea andreak agerraldia egin zuen Parlamentuan 2011ko urriaren 4an, artean Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria zela, informatzeko zertan zen Landa

Garapen Iraunkorrari buruzko 2010etik 2014ra bitarteko Plana Nafarroan finantzatzeko Hitzarmena, atzeratu egin baitzen haren sinatzea. Agerraldian, kontseilariak adierazi zuen akordioa sinatu gabe zegoela Ekonomia eta Ogasun Ministerioak uste zuelako Nafarroa ez zela defizit-helburua betetzera iritsi.

Halaber, 2013ko urriaren 3an, Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidan, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina andreak ondokoa adierazi zuen: "2012an, Nafarroa gai izan zen defizit-helburua lehendabiziko aldiz betetzeko."

Hori guztia kontuan hartuta, ondokoa jakin nahi dut:

**1.** Zergatik jarraitzen du sinatu gabe Nafarroako Gobernuaren eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren artean Garapen Iraunkorrari buruzko 2010etik 2014ra bitarteko Plana finantzatzeko Hitzarmenak?

**2.** Zein dira epeak Nafarroan egiteke dauden jarduketak edo proiektuak egin ahal izan daitezkeen? Proiektu edo jarduketa bakoitzaren egutegiaren kopia jaso nahi dut.

**3.** Landa Garapen Iraunkorrari buruzko 2010etik 2014ra bitarteko Programan aurrekontua esleiturik duten jarduketa guztiak eginen al dira? Ezezkoan, zeintzuk geldituko lirateke aurrekontua esleitu gabe eta egin gabe?

Iruñean, 2013ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

## **Galdera, Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioak gauzatutako ekimenei buruzkoa.**

*MIREN JULIA ARANO A ASTIGARRAGA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioak gauzatutako ekimenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarragak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko organo eskudunak idatziz erantzun diezaion:

1. Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioak azken bi urteotan gauzatutako ekimenen zerrenda xehakatu, esleitutako baliabideak eta baliabide horien jatorria zehaztuta.

2. Fundazioak bere jarduerarekin jarraitzeko dituen baliabideen zenbateko osoa, galdera hau jasotzen den egunean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

## **Galdera, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin etxegabetzeen gaineko hitzarmen bat sinatzeari buruzkoa.**

*GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkezturiko ahozko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin etxegabe-

tzeen gaineko hitzarmen bat sinatzeari buruzkoa zen eta 2013ko irailaren 30eko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Pablo Díez Lago jaunak Nafarroako Parlamentuko legelari nagusi karguari uko egitea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Onartzea Pablo Díez Lago jaunak Nafarroako Parlamentuko legelari nagusi kargua dela-eta aurkezturiko ukoa, eta Legebiltzarrari eman dizkion zerbitzuak eskertzea.

**2.** Legelari nagusi kargua hutsik deklaratzeko.

**3.** Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---



---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

**4/2013 Legegintzako Foru Dekretua, urriaren 30ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita urriaren 30eko 4/2013 Legegintzako Foru Dekretua, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, eta kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 162. artikuluan xedatutakoa, hona ERABAKIA:

**1.** Adieraztea urriaren 30eko 4/2013 Legegintzako Foru Dekretuaren berri izan duela, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**4/2013 Legegintzako Foru Dekretua, urriaren 30ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena**

**ZIOEN AZALPENA**

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 32. artikulua xedatzen duenez, Nafarroako Foru Komunitateak, balio erantsiaren gaineko zergaren esparruan bere tributu-ahalmena erabiliz, Estatuan unean-unean indarra duten oinarrizko prin-

tzipio, funtsezko arau eta arau formal berak aplikatu behar ditu; hala ere, aitorpena eta diru-sarrerak egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu.

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak, 54.1 artikuluan, Nafarroako Gobernuaren araugintzarako ahalmena erregulatzean ezartzen duenez, tributu-araubide erkidearen aldaketa batek behar-tzen badu, Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat, Estatuan indarra duten arau funtsezko eta formazko berberak Foru Komunitatean aplikatzera, Nafarroako Gobernuak tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru lege mailako arauak eman ditzake, Nafarroako Parlamentuak eskuordeturik. Aipatu 14/2004 Foru Legearen 54.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Nafarroako Gobernuaren xedapen horiei, aipatu legegintzarako eskuordetzearen ondorio direnean, "tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu" izena emanen zaie.

Ekintzaileei Laguntzeko eta haien Nazioarteko-tzeari buruzko irailaren 27ko 14/2013 Legeak hainbat neurri fiskal ditu II. tituluan ekintzaileari laguntzeko Gizarte Segurantzaren arloan.

Zehazki, enpresen likidezia arazoak eta kreditua lortzekoak arintzeko, kutxa-irizpidearen araubide berezi bat sortu da balio erantsiaren gaineko zergaren esparruan.

Araubide berezi horri heltzeko aukera jasotzen du balio erantsiaren gaineko zergaren sistema erkideari buruzko Kontseiluaren 2006ko azaroaren 28ko 2006/112/EE Zuzentarauaren 167.bis artikulua; agindu hori 2013ko urtarrilaren 1etik ari da aplikatzen.

Europako erkidegoaren erregulazio berriak bide ematen die estatu kideei aukerako araubide bat, kutxa biko irizpide gisa ezagutzen dena, ezartzeko 2.000.000 euroko eragiketa-bolumena gairatzen ez duten subjektu pasiboentzat; araubide horri jarraituz, zergaren subjektu pasiboek

sorrarazpena atzeratzen duen sistema bat aukera dezakete eta, beraz, jasanarazitako BEZaren aitortpena eta diru-sarrera ere haien merkataritzako eragiketa gehienetan bezeroei kobrantza osoa edo zati batena egin arte, azken eguna eragiketa horiek egin eta hurrengo urteko abenduaren 31 izanik.

Dena dela, merkataritzako betebeharrak atzeratzera bultza dezaketen egoerak galaraztearren, Europako araudiak ezarrita du subjektu pasiboek modu berean atzeratuko zaiela eskurapenetan jasandako BEZaren kenkaria, harik eta hornitzaileei ordaindu arte, eta, orobat, eragiketak egin eta hurrengo urteko abenduaren 31 dute azken eguna.

Subjektu pasiboaren aukerako araubide berezi berriaren ondorioz hura eragiketa guztiei aplikatuko zaie, zenbait salbuespenekin, hala nola, Europako erkidego barreneko eragiketei eta zergaren beste araubide berezi batzuen menpe daudenei.

Azkenik, jasanarazitako kuotak sorraraztea eta haien kenkaria egitea aurreikusita daude araubide bereziaren xedeko eragiketei dagokienez, sorrarazteko edo kenkaria egiteko zain badaude hartzekodunen konkurtsoaren kasuan eta kreditu kobraezinengatiko zerga-oinarriaren aldaketaren kasuan.

Adierazitakoarekin bat, beharrezkoa da Foru Komunitateak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeari dagozkion aginduak balio erantsiaren gaineko zergari buruzko araudiak araubide erkidean izan duen aldaketara egokitzea.

Aipatu legegintzarako eskuordetza baliatuz, tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu bidez ematen da 19/1992 Foru Legea aldatzeko behar den araua, 14/2004 Foru Legearen aipatu 54.1 artikuluari jarraituz.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak proposaturik, eta bi mila eta hamahiruko urriaren hogeita hamarrean egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

**Artikulu bakarra.** Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen agindu hauek aldatu dira, eta ondoren azaldu bezala gelditu:

Bat. 65.1. artikulua, 9. zenbakia gehitzea.

“9. Kutxa-irizpidearen araubide berezia”

Bi. X. kapitulua gehitzea VIII. tituluari.

“X. Kapitulua

Kutxa-irizpidearen araubide berezia

108. decies artikulua. Aplikazioko baldintza subjektiboak.

1. Aurreko urte naturalean 2.000.000 euroko eragiketa-bolumena gainditu ez duten zergaren subjektu pasiboek aplikatzen ahalko dute kutxa-irizpidearen araubide berezia.

2. Subjektu pasiboak aurreko urte naturalean hasi dituen enpresa edo lanbide jarduerak, eragiketa-bolumenaren zenbatekoa urtebetekotzat jo beharko da.

3. Subjektu pasiboak aurreko urte naturalean hasi ez dituen enpresa edo lanbide jarduerak, abian den urte naturalean aplikatzen ahalko du araubide berezi hau.

4. Subjektu pasiboak egindako eragiketen bolumena, aurreko ataletan aipatua, zehaztearren, eragiketak egindakotzat joko dira balio erantsiaren gaineko zerga sorrarazi denean edo sorrarazi bada, noiz eta eragiketei kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatu ez zaienean.

5. Urte naturalean hartzaile bat berari buruzko eskudirutako kobrantzak erregelamenduz erabakiko den zenbatekoa gainditzin duenean, subjektu pasiboak kutxa araubidetik baztertuko dira.

108. undecies artikulua. Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatzeko baldintzak.

Aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboek aplikatzen ahalko dute kutxa-irizpidearen araubide berezia, baldin erregelamenduz ezarritako moduan hura aplikatzea aukeratzen badute. Aukera luzatutzat joko da, non ez zaion uko egiten. Ukazioa erregelamenduz ezarritako baldintzen arabera egiten da. Uko egite horrek hiru urteko balioa izanen du, gutxienez ere.

108. duodecies artikulua. Aplikazioko baldintza objektiboak.

1. 108 decies artikuluan aipatzen diren subjektu pasiboek aplikatzen ahalko diete kutxa-irizpidearen araubide berezia zerga aplikatzen den lurraldean egindakotzat jotzen diren eragiketei.

Subjektu pasiboak egindako eragiketa guztiei buruzkoa izanen da kutxa-irizpidearen araubide berezia, artikulua honen hurrengo atalean ezarritakoa galarazi gabe.

2. Hurrengo eragiketak daude kutxa-irizpidearen araubide berezitik baztertuta:

a) Araubide berezien babesekoak: erraztua, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzarena, baliokidetan-errekarguarena, inbertsioko errearena, bide elektronikoz egindako zerbitzuei aplikatzeko eta entitate multzoarena.

b) 18, 19, 20, 21 eta 22. artikuluetan aipatzen diren ondasun entrega salbuetsiak.

c) Europako erkidego barreneko ondasun eskurapenak.

d) 31.1 artikuluko 2., 3. eta 4. zenbakien arabera eragiketaren xedeko enpresaburua edo profesionala denean zergaren subjektu pasiboa.

e) Inportazioak eta inportazioekin parekatutako eragiketak.

f) 9.1. eta 12. artikuluetan aipatzen direnak.

108. terdecies artikulua. Kutxa-irizpidearen araubide bereziaren edukia.

1. Araubide bereziaren aplikazioaren xedeko eragiketetan, prezioaren guztirako kobrantza osoa edo zati batena egiten den unean sorraraziko da zerga, haietan benetan jasotako zenbatekoengatik edo, kobratu ez bada, eragiketa egin eta hurrengo urteko abenduaren 31n sorraraziko da.

Ondorio horietarako, eragiketaren prezio osoa edo zati batena noiz kobratu den frogatu beharko da.

2. Araubide berezi honen aplikazioaren xedeko eragiketetan, faktura egin eta ematen den unean izanar du zergak bere eragina, baina eragiketa sorrarazten den unean egiten dela ulertuko da, aurreko atalean xedatutakoaren arabera.

3. Araubide berezi honen aplikazioaren xedeko subjektu pasiboek kenkariak izaten ahalko dituzte VII. tituluan ezarritako moduan, berezitasun hauekin:

a) Araubide berezi honen babeseko subjektu pasiboek jasandako kuotetan kenkariak egiteko eskubidea prezioaren ordainketa osoa edo zati batena egiten den unean sortzen da, haietan benetan ordaindutako zenbatekoengatik edo, ordaindu ez bada, eragiketa egin eta hurrengo urteko abenduaren 31n.

Noiz gertatzen ere den zergapeko egintza, aurrekoa aplikatu egingen da.

Ondorio horietarako, eragiketaren prezio osoa edo zati batena noiz ordaindu den frogatu beharko da.

b) Zer likidazio alditan sortu den jasandako kuoten kenkarirako eskubidea, hari edo hurrengo buruzko aitopen-likidazioan erabiltzen ahalko da

kenkarirako eskubidea, baldin eta ez bada lau urteko epea iragan, aipatu eskubidea sortu zenean.

c) Titularrak aurreko letran ezarritako epean erabili ez badu, jasandako kuoten kenkarirako eskubidea iraungiko da.

4. Erregelamenduz zehaztuko dira araubide berezi hau aplikatzen duten subjektu pasiboen betebeharrak formalak.

108. quaterdecies artikulua. Kutxa-irizpidearen araubide bereziari uko egitearen edo hartatik baztertearen ondorioak.

Kutxa-irizpidearen araubide bereziaren aplikazioari uko egin edo hartatik baztertuta, hark erregulatutako arauari eutsiko zaie haren indarraldian egindako eragiketei dagokienez, aurreko artikuluan adierazitako moduan.

108. quinquiesdecies artikulua. Kutxa-irizpidearen araubide bereziak ukitutako eragiketak.

1. Kutxa-irizpidearen araubide berezitik kanpo baina haren barreneko eragiketen hartzaile diren subjektu pasiboek kenkarirako eskubidea, eragiketa horiek jasandako kuotei dagokienez, haien prezio osoa edo zati bat ordaintzen den unean sortuko da, benetan ordaindutako zenbatekoengatik edo, ordainketa egin ez bada, eragiketa egin eta hurrengo urteko abenduaren 31n.

Noiz gertatzen ere den zergapeko egintza, aurrekoa aplikatu egingen da.

Ondorio horietarako, eragiketaren prezio osoa edo zati batena noiz ordaindu den frogatu beharko da.

Kutxa-irizpidearen araubide bereziak ukitutako eragiketen hartzaile diren subjektu pasiboek betebeharrak erregelamenduen arabera zehaztuko dira.

2. Kutxa-irizpidearen araubide berezitik kanpo subjektu pasiboek 28.4 artikuluan aipatu zerga-oinarriaren aldaketa eginez gero, araubide berezi horren babeseko subjektu pasibo zordunak jasandako kuoten kenkarirako eskubidea sortuko da, aipatu zerga-oinarriaren aldaketa egiten den egunean kenkaria egin gabe duten aldatutako eragiketei dagokienez.

108. sexies artikulua. Konkurtso deklarazioaren autoaren ondorioak.

Kutxa-irizpidearen araubide bereziaren babeseko subjektu pasiboaren edo eragiketen hartzailea den subjektu pasiboaren konkurtso dekla-

razioak ondorio hauek ekarriko ditu haren autoaren datan:

a) Kutxa-irizpidearen araubide bereziaren babeseke subjektu pasiboak jasanarazitako kuotak sorraraziko dira, data horretan sorrarazteko zain badaude;

b) Subjektu pasiboak jasandako kuoten kenkarirako eskubidea sortuko da, eragiketen hartzaile izan bada, kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatu bazaie, ordaintzeko zain badaude eta, data horretan, 108 terdecies.3.a) artikuluan aurreikusitako epea iragan ez bada;

c) Konkurtsoko eta kutxa-irizpidearen araubide bereziaren babesean den subjektu pasiboak jasandako kuoten kenkarirako eskubidea sortuko da, hartzaile izan den araubide berezi horretatik kanpoko eragiketei dagokienez, ordaintzeko zain

badaude eta, data horretan, 108 terdecies.3.a) artikuluan aurreikusitako epea iragan ez bada.

Konkurtsotan den subjektu pasiboak sorrarazitako kuotak aitortu beharko ditu eta aurreko lerroaldeetan aipatu jasandako kuoten kenkaria egin erregelamenduz aurreikusitako aitopen-likidazioan, konkurtso deklarazioaren aurreko zergapeko egintzei dagokienez. Orobat, data horretan kenkaria egiteko zain dauden gainerako jasandako kuotak aitortu beharko ditu subjektu pasiboak aitopen-likidazio horretan.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.